



# Ezpatak

2016ko maiatzak 28 eta 29 EIBAR-IRUÑEA

**Dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia**  
**Ezpata-dantzak**



*Ezpata-dantza Nuremberg-en (Alemania), 1600 inguruan.*

*Argitaratzaileak:*

*Duguna dantza taldea*

*Kezka dantza taldea - Eibarko Klub Deportiboa*

*Diseinua eta inprimategia:*

*Gertu Komunikazio Bide, S.L., Oñati.*

*CC BY-SA Ezpalak 2015*

<http://dantzan.eus/kidea/ezpalak>

# Ezpata-dantzak, 2016ko ezpalak



**D**raindik izena ere ez zuen lehen Ezpalak jaialdia 2006an egin genuen, Eibarko 41. Euskal Jaiaren barruan, eta ezpata-dantzak hartu genituen gaitzat. 2007an makila-dantzen jaialdiarekin zabaldu zen ekitaldia Iruñera, eta 2008an hartu zuen Ezpalak izena. Hamar urteko ibilbidea borobilduz, ezpata-dantzak ditugu 2016an berriz protagonista.

Ezpata-dantzak dantza egitura moduan ulertzen ditugu gaur; ez du axola ezpatak, makilak, arkuak edo sokak erabiltzen diren, tresna horien bidez lotzen diren egiturek ematen diote izena generoari. XV. mendean modan ziren ezpata-dantzak Europan, eta XXI. mende hasieran ere modan daudela esan daiteke. Zahar-zaharrak eta berri-berriak, denetarikoak ikusi ahal izango ditugu 2016ko Ezpalak jaialdian; bai urrutitik (Ingalaterra edo Andaluziatik) etorritakoak baita gure hiri eta herrietan egiten direnak ere.

**Duguna dantza taldea – Kezka dantza taldea**



zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

# *Ezpalak, dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia*

*2016ko maiatzaren 28an eta 29an Iruñean eta Eibarren*

**Iruñea. Maiatzak 28, larunbata**

12:15ean Kalejira alde zaharreko karraketan barna.

12:30ean Ezpalak jaialdia Burgoen Plazan:

- Duguna dantza taldea – Iruñea (Nafarroa) .....6
- Maritzuli dantza konpainia – Biarritz (Lapurdi) .....7
- San Bartolomé de la Torreko dantzariak – San Bartolomé de la Torre (Huelva).....8
- Lesakako ezpata-dantzariak – Lesaka (Nafarroa).....9
- Kingsmen ezpata-dantzariak - Newcastle (Ingalaterra).....10
- Aunitz Urtez ezpata-dantza – Eibar-Iruñea (Gipuzkoa-Nafarroa).....11



## Eibar. Maiatzak 29, igandea (51. Euskal Jaia)

12:00etan Kalejira Urkizutik Untzaga plazara.

12:30ean Ezpalak jaialdia Untzaga Plazan:

- Kezka dantza taldea - Eibar (Gipuzkoa) .....12
- Gure Txokoa dantza taldea – Bera (Nafarroa) .....13
- San Bartolomé de la Torreko dantzariak - San Bartolomé de la Torre (Huelva) ...8
- Irrintzi dantza taldea – Zumarraga (Gipuzkoa).....14
- Kingsmen ezpata-dantzariak - Newcastle (Ingalaterra).....10
- Aunitz Urtez ezpata-dantza - Iruñea-Eibar (Nafarroa-Gipuzkoa) .....11

17:00etan erromeria Gathübi taldearekin.

zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

## Duguna dantza taldea

Iruñea (Nafarroa)

Iruñeko Duguna dantza taldea 1949. urtean sortu zen, eta Iruñeko udal talde gisa jarduten du urteko udal-ekitaldi edo protokolo-ekitaldi garrantzitsuetan. Beste batzuen artean, beharbada, azken urteotako euren ekarpen garrantzitsuenetako batzuek San Blas eta San Joan bezpera eguneko soka-dantzak dira, edota Iruñeko ezpata-dantza, irailaren 25etik hurbilen egokitzen den igandean eta Aldapako San Ferminen omenez dantzatzen dena.



# Maritzuli dantza konpainia

Biarritz (Lapurdi)

zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

1999an sortu zenetik, Biarritzeko herriko etxearen sustengua dauka Maritzuli konpainiak, baita Euskal Kultur Erakundearena eta Malandain Ballet Biarritz-zentro koreografiko nazionalarena ere. Claude eta Jon Iruretagoienaren zuzendaritzapean, Maritzuliren zeregina euskal dantza ikertu, babestu eta transmititzea izan da, eta bere sorkuntza-lanei esker gure kulturari hain garrantzitsua den dantza arraberritzea.

Ibilbide osoan Juan A. Urbeltzen maisutza funtsezkoa da. 2014an Biarritzeko kaleetan aurkeztu zuten San Martin Ezpata-dantzarekin tradizioan oinarrituta tradizioa berritu eta eredu ikusgarriak plazaratzeko lanean urrats berria eman zuen Maritzulik.



ezpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

# San Bartolome de la Torreko dantzariak

## Huelva (Andaluzia)

Ez-pata-dantzei eskainitako aurtengo edizioan dakargu Ezpalak jaialdira Andaluziako talde bat estraineko: Huelvako San Bartolome de la Torre herriko *danzaor*-en taldea. Herrian bai San Sebastian (urtarrilaren 20an), bai San Bartolome (abuztuaren 24an) egunekin lotutako prozesioei laguntzeko dantzatzen da bertako ez-pata-dantza.

Ez-pata-dantza lau, sei edo zortzi dantzarik osa eta dantza dezakete, gehi beste buruzagi edo *rabeador* batek. Hau dantzarien kontrako norabidean aritzen da. Zenbaitetan, *danzaor* izaera aitagandik semearengana igaro izan da, baina gaur egun ez diote ohitura horri hertsiki eusten.

Dantzak zazpi mudantza edo zati desberdin izan ditzake, eta doinua flauta eta danborraz jotzen da.





# Lesakako ezpata-dantzariak

*Lesaka (Nafarroa)*

ezpata, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

Lesakako ezpata-dantzariena Lherriko gazteez osaturiko taldea da. Uztailaren 7an bakarrik dantzatu ohi dute, herriko San Fermin besten baitan. Egunean zehar aintzinatik datozen eta belaunaldiz belaunaldi iragan diren dantza ezberdinak dantzatzen dituzte: ziharkakoa, zubigainekoa, esku-dantza, mutil-dantza, aureskua ... herriko txistulari taldeaz eta musika bandaz lagunduta.

Dantzen jatorria zehazki zein den jakin ez arren, musika piezak Erdi Arokoak direla jakina da. Ezpata-dantzak izan arren, zintadun makilekin dantzatzen dira Lesakako dantzak nahiz eta uste den garai batean ezpatekin ginen zirela.



zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

# Kingsmen espata-dantza taldea

Newcastle (Ingalaterra)

Newcastle hiriko Kingsmen taldea Ingalaterrako ipar-ekialdeko *rapper* erako espata-dantzetan espezialdua dago. Jatorriz eskualde hartako ikatz-meatzarien dantzak izaki, bizkorrak, kementsuak eta unean-unean akrobatikoak ere suerta daitezke. Usadioari eutsi nahi izan diote Kingsmen taldekoek, eta emanaldi formaletan nola tabernetan inprobisatutako beste batzuetan ere hartzen dute parte.

Kingsmen ikasle talde baten ekimenez sortzen da, 1949. urtean, dantzan egin eta karitatezko helburuekin dirua biltze aldera. Gaur egun, Kingsmen Ingalaterrako dantza tradizionala egiten duten talde ezagunenetako bat da, eta rapper dantzak ez ezik, espata luzeen tradizioko dantzak ere egiten dituzte.



# Aunitz Urtez espata-dantza

*Aldapako San Ferminen eta Arrateko  
espata-dantzak batera*

ezpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

Juan Antonio Urbeltzen gidaritzapean sortu ziren hala Eibarko Arrateko Amaren espata-dantza 2005. urtean, nola 2009tik hona Iruñeko Aldapako San Ferminen omenez dantzatzen dena. Iraileko espata-dantzak biak. Eta Juan Antonio Urbeltzek zuzendutako Aunitz Urtez ikuskizunean eratu zen biak kuadro berean gurutzatzen dituen koreografia. Duguna dantza taldeko txistularien doinuepean Iruñeko bandera arbolten ikusiko dugu eta talde bietako buruzagiak espatez osatutako arrosen ginetik dantzan.



ezpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

# Kezka dantza taldea

## Eibar (Gipuzkoa)

Eibarko Klub Deportiboaren baitan 1958an sortutako dantza taldea da Kezka. Aratusteekin hasi eta San Andres jaietara bitartean, Eibarko festa egutegian hainbat ekitaldi eta herri tradizioan dantzatzeaz arduratzen da. Horien artean aipatzekoak dira inauterietako koko-dantzak, San Joan eguneko soka-dantza edo Arrateko Amaren dantzak.

Euskal dantza tradizionalan ikasleak trebatzeko eta hezteko asmoz, dantza eskola du indarrean Kezka dantza taldeak. Sei urterekin hasi eta hamasei urte bitartean, dantza tradizionalaren mundua ezagutzen joateko aukera eskaintzen du eskolak, eta dantza eginez gozatzeko bidea erakusten die bere ikasleei, bai Portalea Kultur Etxeko dantza-gelan eskaintzen diren eskolen bidez, baita plazan egiten dituzten emanaldien bidez ere.



# Gure Txokoa dantza taldea

Bera (Nafarroa)

zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

Bera-ko (Nafarroa) Gure Txokoa taldea Gure Txokoa Kultur eta Kirol Elkarteko dantza taldea da. Elkartea 1931. urtean sortu bazen ere, lehendik bazegoen herrian beste dantza talde bat. Gaur egun 6 eta 28 urte bitarteko 120 dantzarik osatzen dute taldea. Berako dantzak (makil-dantza, bordon-dantza eta Berako aureskua) egiteaz gain, Euskal Herriko beste hainbat pieza ere egiten ditu. Berako bestetako emanaldiak alde batera utzita, Euskal Herri guztian zehar hainbat saio eskaini ditu Gure Txokoak. 2015. urtean Salamankan burututako emanaldi baten ondoren, muga horiek handitzeko bidean dago elkartea. 2014. urtetik neska-mutilek, elkarrekin nahasian dantzaten dituzte Berako dantzak.



zpalak, dantza tradizionalaren  
nazioarteko  
jaialdia

## Irrintzi dantza taldea

### Zumarraga (Gipuzkoa)

Uztailaren 2an, Santa Isabel egunez, Antioko ermitan egiten den egun osoko festak kutsu berezia du zumarragar zein urretxuar askorentzat. Bertan Zumarragako ezpata-dantzak hartzen du festako protagonismo nagusia. Goizean goiz dantzariak, txistulariekin batera, Antio aldera jotzen dute, oinez. Meza nagusia baino lehen, eliza barruko dantzak egiten dira aldare aurrean, Ama Mariaren ohorez; meza bukatu eta gero kanpoan, herritar guztien aurrean. XVI. mendetik aurrera dantza eta festa honen inguruko informazioa ugaria da.

Badira 50 urte Irrintzi Dantza Taldeak eta Antxinako Ama Txistulari Taldeak egun honetan dantzan egin eta txistua jotzeko ardura hartu zutenetik, eta oraindik ere horretan dihardute. Hainbeste urtetan erritoak aldaketa eta anekdota ugari jaso ditu. Esaterako, 2015. urtean neskek lehen aldiz egin ahal izan zuten Zumarragako ezpata-dantza. Dantza talde osoarentzat nahiz herritar askorentzat egun berezia izan zen.



# Ezpalak bereko ezpalak



Ezpalak jaialdia gai baten inguruan egituratzen da urtero. Helburua Europako dantza tradizionalaren esparruan gorde den fondo komuna erakustea da. Urte hauetan Ingalaterra, Flandria, Frantzia, Portugal, Norvegia, Turkia, Okzitania, Katalunia, Valentzia, Gaztela, Galizia, Kanariar irlak, Eskozia, Italia, Asturias, Aragoi, Kantabria eta Euskal Herriko dantzak ikusteko aukera eskaini du jaialdiak.

Ezpalak, dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia, urtez urte:

- 2006: Ezpata-dantzak
- 2007: Makila-dantzak
- 2008: Arku-dantzak
- 2009: Karaktere-dantzak
- 2010: Dantza-jauziak
- 2011: Bikoteko dantza soltea
- 2012: Zinta-dantzak
- 2013: Sorgin-dantzak
- 2014: Danbolinteroak
- 2015: Soka-dantzak



2016ko maiatzak 28 eta 29 EIBAR-IRUÑEA  
**Dantza tradizionalaren nazioarteko jaialdia**  
**Ezpata-dantzak**

**ANTOLATZAILEAK:**



**LAGUNTZAILEAK:**



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
POLITICA LINGÜISTICA Y CULTURA



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa